

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mikel Lazpiur Lamariano

*Bergara,
Gipuzkoa
(1942)*

Aurkibidea



Biografia



Ostetan jaioa. Jose Lazpiur aitajaunak zapata-tailerra zeukan bertan, eta aitak jarraitu zuen negozioarekin. Ama Uberakoa zen. Mikelek maestria-ikasketak egin zituen Bergarako Elementalean. Beste lan batzuetan ibili ostean, etxeko negozioan hasi zen lanean. Hori bai, zapata-lantegia tailer mekaniko bihurtu zuten, berriro hutsetik hasita. Mikel negozio-gizona da. Confebask-eko burua ere izan zen. Elkarrizketa hau, baina, Bergarako euskalgintzari eta kulturgintzari buruzkoa da: gerraosteko lehenengo dantza-taldeko kidea izan zen Milkela, eta baita Enai antzerki-taldekoa ere. Elkarrizketan [Arantxa Ibarzabal](#) ere egon zen, hura ere Ernain ibilitakoa.

Zintak

BER-352

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-03-04
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Aitonak eta aitak tailerrak zituzten

- **Erref:** BER-352/002
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:02:25. **Bukatu:** 00:03:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Mikelen aitona zapata-tailer bat zuen. 1914. urtean 125 langile zituen eta urtean 70.000 zapata pare egiten zituzten. Gerraostean, tailerra itxi behar izan zuen aitona. Mikelen aitak Lekarozen merkataritza-ikasketak egin zituen

arren, mekanikako gaiak asko gustatzen zitzaizkion eta berak ere lantegi txiki bat zabaldu zuen 2-3 lagunekin eta iltzeak egiten zituzten.</p>

2. Lazpiur lantegiaren historia

- **Erref:** BER-352/003
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:03:37. **Bukatu:** 00:05:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Mikelek, Eskola Profesionalean ikasi zuen. Ikasketak bukatu eta Eibarko eta Arrasateko lantegi batzuetan lan egin ondoren, bere tailerra zabaldu zuen. Bizikletarekin lantegiz-lantegi joaten zen eta haiek behar zituzten piezak egiten zituen gero Mikelek bere tailer txikian. Gaur egun, Lazpiur lantegiak 500 langile ditu ia.

3. Bergarako Goiz Argi dantza taldearen sorrera

- **Erref:** BER-352/005
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:05:42. **Bukatu:** 00:07:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Mikel, Goiz Argi dantza taldeko sortzaileetako bat izan zen 16-17 urterekin. Joaquin Etxanizekin harreman handia zeukan eta berarekin batera dantzak ikasten hasi ziren, Bergarako Berdura Plazako etxe batean. Gero, frontoian entseatzen hasi ziren, taldeari izena ipini zioten eta armarrria asmatu zuten.

4. Espainiako banderarekin dantza egitera behartuak

- **Erref:** BER-352/006
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:07:19. **Bukatu:** 00:08:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Goiz Argi dantza taldeak lehenengo aldiz dantza egin zuenean, Espainiako bandera erakutsi behar izan zuen, frankistek behartuta.

5. Bergarako Goiz Argi dantza taldearen lehenengo urteak

- **Erref:** BER-352/007
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:08:07. **Bukatu:** 00:10:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

1958an sortu zuten Goiz Argi dantza taldea. Lehenengo urteetan zer dantzatzeko zuten kontatzen du Mikelek. Moises Azpiazu taldera batu zenean dantza-txapelketekin hasi ziren.

6. Balentin de Berriotxoaren omenezko dantza

- **Erref:** BER-352/008
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:10:29. **Bukatu:** 00:11:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Elorrioko herriak Balentin de Berriotxoaren jaiotzaren omenaldi bat egin nahi zuen eta Bergarako Goiz Argi taldekoak joan ziren dantzara. Dantza berezi bat sortu zuten omenaldirako. Joaquin eta Ramon Etxanizek musika sortu zuten eta gainontzekoek dantzak. "Circulo Carlistan"-n bazkaldu zuten

7. Bergarako Goiz Argin giro ederra; taldekideak

- **Erref:** BER-352/009
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:11:31. **Bukatu:** 00:15:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Goiz Argi taldean, pentsaera ideologiko ezberdineko jendea zegoen arren, denak zeuden Francoren diktadurarekin gogaituta eta ez zen liskarrik egoten beraien artean. Hasieran mutil talde bat zen, baina Moises Azpiazu trikitiarekin hasi zenean, neskak taldera biltzen hasi ziren. Taldekideak aipatzen ditu: Fernando Coranti, Jose Alberdi "Satorretxe", Patxi Leturia, Patxi Azkarate, Jose Luis Mendizabal, Jose Luis Gallastegi, Jose Ramon Lazkano, Jose Garitano, Ramon eta Joaquin Etxaniz... Gauetan entseatzen zuten. Lanagatik utzi behar izan zuen taldea Mikelek, 1964 urte inguruan.</p>

8. 1933ko Bergarako batzokiko dantza-taldea

- **Erref:** BER-352/010
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:15:33. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Mikelek, 1933an Batzokiko dantza-taldeko argazki bat azaltzen du.

9. Margotzeko afizio handia txikitatik

- **Erref:** BER-352/011
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:19:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Margolaria ere bada Mikel. Nola hasi zen eta zer egin duen kontatzen du. Txikitatik izan du zaletasuna eta hasieran aitak ez bazuen nahi ere, klaseak hartzen hasi zen Simon Arrietarekin. Gero, Miguel Okinarekin ikasten jarraitu zuen 30 urtez eta gaur egun, baserrian estudio bat dauka Mikelek. u.

10. Simon Arrieta artista

- **Erref:** BER-352/012
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:19:22. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Simon Arrieta izan zen Mikelen marrazkiko irakaslea. Nolakoa zen kontatzen du, Ava Gardner ezagutu zueneko, ilobak jaio zireneko istorioak... Oso pertsona ona zen.

11. Bergarako margolarien taldea

- **Erref:** BER-352/013
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:24:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

BeART Bergarako margolarien elkarte da. Garai batean ez zegoen elkarterik baina talde nahiko finko bat zuten eta erakusketak egiten zituzten kolektiboki. Artistetako batzuk aipatzen ditu Mikelek: Jose Javier Agirre, Agustin Amasorrain, Josu Ugalde, Mari Paz Alustiza...

12. Miguel Okina marrazkilaria

- **Erref:** BER-352/014
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:24:09. **Bukatu:** 00:26:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Mikel izena nondik datorkion kontatzen du eta horrela desberdintzen zituzten bera eta Miguel Okina. Azken honekin larunbatero joaten zen marraztera, ardo batzuk edaten zituzten eta kantuan bueltatzen ziren Bergarara.

13. Bergarako "Hor Konpon" taldea

- **Erref:** BER-352/015
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:26:36. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Begarako "Hor Konpon" taldeari buruz hitz egiten du. Futbol taldea ere zuten eta kanta bat zeukaten. Olgetarako elkarte bat zen eta gauza askotan hartzen zuten parte. Kide zaharrenetariakoak aipatzen ditu: "Errentxeri", "Prakamotz", "Otxakila", "Karamelerua"....

14. Bergarako Ernai antzerki taldearen sorrera

- **Erref:** BER-352/016
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:32:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Ernai antzerki taldean aritu zen Mikel. 1965ean hasierako taldea sortzen egon zirenak: Juste Amenabar, Don Imanol Sorondo Txomin Amasorrain, Joxe Alvarez, Don Serafin Esnaola...Lehenengo antzezlan "Malentxo alargun!" izan zen. Santamaña elizako lokal batean hasi ziren entseatzen eta gero San Pedro elizako etxe batera pasatu ziren.

15. Gerra aurreko Bergarako batzokiko antzerki taldearekin argazkia

- **Erref:** BER-352/017
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:32:15. **Bukatu:** 00:35:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

1934ko Bergarako batzokiko antzerki taldearen argazki bat erakusten du Mikelek eta bertan zeuden partaideetako batzuk aipatzen ditu, nahiz eta asko ez den gogoratzen. Mikelen aitak, gerra aurretik bakarrik egiten zituen batzokian.

16. Ernai antzerki taldea: Juste Amenabar eta Txomin Amasorrain I

- **Erref:** BER-352/018
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:35:19. **Bukatu:** 00:36:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Ernai antzerki taldean, Juste Amenabarrek eta Txomin Amasorrainek zeukaten paperez hitz egiten du Mikelek. Txomin zuzendari artistikoa zen eta testuak euskaratzen zituen. Justek ordea, manager eta antolamendu lanak egiten zituen.

17. Ernai antzerki taldearen lehen antzezlan

- **Erref:** BER-352/019
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:36:55. **Bukatu:** 00:38:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

"Malentxo alargun!" izan zen lehenengo egin zuten antzezlan. Antzezlanaren eskuorria erakusten da eta aktoreak izendatzen ditu: Mari Kontxi Aranguren, Itziartxo Amenabar, Mikel Lazpiur, Iñaki Arraiaran, Xabier Zezeaga, Arantxa Ibarzabal, Angelita Agirrebeña, Joaquin Bikuña, Ixabel Arregi eta Gotzon Bikuña. Bergarako "Salon Novedades"-en egin zen antzezlan 1966an. Arrakasta handia izan zuten.

18. "Ordu eroslea" antzezlan euskaraz 1968an

- **Erref:** BER-352/020
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:38:48. **Bukatu:** 00:40:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Espainiako "El comprador de horas" antzezlan euskaratu eta antzeztu zuen Ernai antzerki taldeak. Antzezlanaren eskuorritik aktoreak irakurtzen ditu: Xabier Zezeaga, Iñaki eta Arantxa Ibarzabal, Pedro Epelde, Iñaki Arriaran, Marixabel Arregi, Agustin Unzununzaga, Alberto Bolibar, Xabier Muruamendiaraz, Rosa Mari Fernandez, Itziar Amenabar, Angelita Agirrebeña, Mari Kontxi Aranguren, Mertxe Elkoro-Berezibar, Marcos Gabilondo eta Arantxa Amasorrain.

19. Ernai antzerki taldea: Juste Amenabar eta Txomin Amasorrain II

- **Erref:** BER-352/021
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:40:30. **Bukatu:** 00:44:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Antzezlanetarako arropak ahal zuten lekutik lortzen zituzten. Juste Amenabar nolakoa zen kontatzen du Mikelek: oso jatorra, abertzale peto-petoa, polita eta taldea bideratzeko zoragarria zela kontatzen du. Txomin Amasorrain euskaltzale amorratua izan zen. Antzezlan ezberdinak euskaratu zituen: "Ordu eroslea", "Argi ixpia bat"... Bergarako Urrentxindorrek taldekoei ere kanten hitzak euskaratzen zizkien.

20. Txomin Amasorrainen kontakizun bat I

- **Erref:** BER-352/022
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:44:35. **Bukatu:** 00:47:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Txomin Amasorraini buruz hitz egiten du Mikelek. Ernai antzerki taldeko entsegetan, "Gainjantzi beltz" izena zuen Andaluziako pattar bat edaten zuten. "Zeruko Argia"-n kronika idazten zuen eta txisteak kontatzen zituen. Txominen kontakizun bat kontatzen du Mikelek.

21. Txomin Amasorrain, irakasle

- **Erref:** BER-352/024
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:47:32. **Bukatu:** 00:48:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Txomin Amasorrain Mikelek irakaslea ere izan zen. Matematika irakasten zion Elementaleko azkenengo ikasturtean. Denak aprobatzen zituen, ikasleak etxean laguntzeko lanean hasi behar zirelako lehenbailehen.

22. "Malentxo Alargun!" antzezlana

- **Erref:** BER-352/025

- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:48:44. **Bukatu:** 00:52:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

"Malentxo Alargun!" antzezlaneko pertsonaiei buruz hitz egiten du Mikelek. Iñaki Arriaran soldaduskara joan zenean, Ormaiztegiko mutil batek ordezkatu zuen. Keinu asko egiten zituela eta oso barregarria zela kontatzen du Mikelek. "La Unidad" falangisten Donostiako egunkariko sari bat irabazi zuten antzezlanarekin.

23. "Konbenixo" kaleko ikastola txikian entseatzen

- **Erref:** BER-352/026
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:52:24. **Bukatu:** 00:53:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

"Konbenixo" kaleko elizako lokal batzuetan hasi zen Ernai antzerki-taldea entseatzen. Han, ikastola txiki bat zegoen eta haiei laguntzeko, antzerki taldekoek kuota bat ordaintzen zuten hilabetero.

24. "Itto edo ezkondu" antzezlana 1967an

- **Erref:** BER-352/028
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:54:44. **Bukatu:** 00:56:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Ernai antzerki taldearen bigarren antzezlana, Nemesio Etxanizek euskaratutako "Itto edo ezkondu" izan zen. Mikelek, Etxanizen olerki bat buruz esaten du. Obraren pertsonaiez eta istorioaz hitz egiten du.

25. "Ordu eroslea" eta "Argi ixpi bat" antzezlanak

- **Erref:** BER-352/029
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:56:35. **Bukatu:** 00:59:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

"Ordu eroslea" obran, Mikelek sarjentuaren papera egin zuen. Prostituzioaz hitz egiten da antzezlanean. 1969an, Aldo Beneretti-ren "Argi ixpi bat" obra

egin zuten Ernai antzerki taldekoek. Antzezlanaren eskuorria erakusten du Mikelek.

26. Ernai antzerki-taldearen desegitea

- **Erref:** BER-352/030
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:59:51. **Bukatu:** 01:01:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ernai antzerki taldekoek, Moliere-ren "El avaro" obra prestatzen hasi ziren baina Txomin gaixotu egin zen eta taldea desegin egin zen. Giro politikoa ere nahasia zen eta liskar batzuk izan zituzten.

27. Ernai antzerki taldean, giro ederra

- **Erref:** BER-352/031
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:01:34. **Bukatu:** 01:03:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Mikelek, Ernai antzerki taldeko oroitzapen onak ditu. Antolatzaileak oso finak ziren lanean eta taldeko giroa oso ona zen. Zer ikasi zuen kontatzen du: jendaurrean hitz egiten, lotsa kentzen...

28. Antzezlanak zentsura pasatzen

- **Erref:** BER-352/034
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:06:30. **Bukatu:** 01:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Obrak antzeztu aurretik, zentsura pasatu behar zuten. Antzezten zutenean, guardia zibilak beti inguruan egoten ziren. Zentsura nola pasatzen zen azaltzen du. "Malentxo Alargun!"-en testua liburuarekin ikasi zuten, baina gainerakoak makinaz idazten zituen Txominek eta aktoreeo banatu.

29. Bergarako Ernai antzerki taldeko argazkiak

- **Erref:** BER-352/035
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:07:57. **Bukatu:** 01:11:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Bergarako Ernai antzerki taldeko argazkiak erakusten ditu Mikelek eta bakoitza nor den azaltzen du. "Malentxo Alargun!" antzezlanean ateratako argazkia erakusten du Mikelek.

30. Txomin Amasorrainen kontakizun bat II

- **Erref:** BER-352/037
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:11:35. **Bukatu:** 01:13:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Mikelek, Txomin Amasorrainen txisteetako bat kontatzen du.

31. Bergarako Ernai antzerki taldeko intsignia

- **Erref:** BER-352/038
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 01:13:44. **Bukatu:** 01:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Ernai antzerki taldeak entseatzen zuen lekuetan intsignia bat zintzilikatuta izaten zuten. Simon Arrietak margotutakoa zen.

32. Haurren antzerki taldea Bergarako batzokian

- **Erref:** BER-352/039
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:14:18. **Bukatu:** 01:15:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

<p>Juste Amenabarrek 80. hamarkadan haurrentzako antzerki-talde bat sortu zuen. Bergarako batzokian biltzen ziren. Argazkiak erakusten ditu Mikelek. Bere alaba taldean ibili zen.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com